

**EUSKO JAURLARITZA BERRIAREN AURKEZPENA**
PRESENTACIÓN NUEVO GOBIERNO VASCO

2016-11-28 -Palacio de Ajuria Enea- 28-11-2016

Lehendakariaren hitzaldia –Discurso del Lehendakari

Sailburuok, Eusko Legebiltzarburu andrea eta Eusko Legebiltzarraren Mahaia osatzen duzuen kideok, jaun andreok, egun on.

Hasteko eta behin, azkeneko lau urte hauetan Eusko Jaurlaritzan lan egin duten sailburu eta arduradun guztien lana aitortu eta eskertu nahi dut. Ricardo, Ángel, Ana a ze nolako lau urteak igaro ditugun! Benetan ohore bat izan da niretzat zuekin batera lan egitea eta guztiz eskertuta nagokizue eta esker hori betirako izango da. Eskerrik asko bene-benetan! Izan zaretelako gara. Zuek izan zaretelako gara.

Gaur, etapa berri baten hasieran gaude eta, berriro ere, guztion lana eta talde lana beharko dugu aurrera egiten jarraitzeko. Ongi etorriak beraz; garelako izango dira.

Eusko Jaurlaritzak, bat eginda, etorkizuneko erronkei aurre egin behar die eta gainditu behar ditu. Erronkei aurre egiteko ezinbestekoa izango da:

- egonkortasuna eta gobernagarritasuna bermatzea;
- barne eta kanpo konfiantza sustatzea.

Eguneroko lanak sortzen du beharrezkoa den ziurtasuna.

Bat: Eusko Jaurlaritza berriak, lehen egunetik dauka zeregin zerrenda zehatz bat. Akordio bat sinatu dugu eta orain Gobernu Programa adostu behar dugu denon artean;

-Bi: Datorren urterako Aurrekontu proiektua landu eta aurkeztu behar dugu;

-Hiru: Legegintzaldi egutegia osatu behar dugu, dagoeneko Legebiltzarrean dauden 5 proiektuak eta adostu ditugun 14 lege proiektuak oinarri hartuta; eta

-Lau: 2013ko irailean martxan jarri genuen Enplegua sustatzeko eta ekonomia suspertzeko Plana aztertu eta berri bat prestatu behar dugu, 2020 urteari begira.

Lehen lau pausu horiek garrantzitsuak dira, ekimen zehatzak kudeaketa publiko eragina beharko dute izan. Eusko Jaurlaritzaren xedea da:

- ikuspegi partekatu bat adostu;
- konpromiso zehatzak landu eta bete;
- gizartearen beharrei erantzun; eta
- denon artean etorkizun hobeko bat eraiki denontzako.

Hau da bidea Gobernu onaren eredu indartzeko.

Mi agradecimiento a quienes han sido compañeros de viaje en los cuatro años pasados, Ricardo, Ángel, Ana y bienvenidas y bienvenidos, consejeras y consejeros.

Compartimos un Acuerdo y formamos un equipo. Hemos establecido ya nuestra tarea para los primeros meses de Gobierno:

- Uno: Elaborar el proyecto de Presupuesto para el ejercicio 2017; garantizando la viabilidad económica de nuestro proyecto;
- Dos: Completar y presentar el Programa de Gobierno; contamos con 72 compromisos en el ámbito de Desarrollo humano y 43 compromisos en Crecimiento sostenible.
- Tres: Aprobar el Calendario Legislativo; y
- Cuatro: Presentar el Nuevo Programa de Empleo y Reactivación económica; garantizando la sostenibilidad futura de nuestras iniciativas y la orientación al Empleo, la prioridad social.

Estos tres últimos años hemos compartido una experiencia y una trayectoria de trabajo conjunto. Somos conscientes de que la legislatura que ahora afrontamos es crucial para el futuro de Euskadi. La dimensión y relevancia de los pilares del Acuerdo que hemos suscrito así lo ponen de manifiesto:

- Impulsar el crecimiento económico y contribuir a la creación de más empleo y de mayor calidad.
- Garantizar los servicios esenciales del sistema vasco de bienestar y protección social.
- Consolidar de forma definitiva la Paz y la Convivencia.
- Acordar un nuevo Pacto Estatutario de futuro para Euskadi.

Compartimos un compromiso con los principios de la nueva gobernanza. Un compromiso con una gestión responsable, transparente y eficaz. Conformamos un Gobierno Vasco abierto a la participación, la evaluación y la mejora continua. Nos corresponde responder con cercanía a las demandas de la sociedad vasca y construir, desde la colaboración, un futuro de mayor bienestar y más oportunidades para nuestro País. Iniciamos la andadura de un Gobierno con un Programa abierto a la colaboración y entregado al servicio de toda la sociedad vasca.

Sailburuok, elkarrekin etorkizunari begiratzen dion estrategia bat bultzatu behar dugu. Konpromisoa gure ekintzekin erakutsi behar dugu. Norberaren ibilbidean errealismoa, egia eta lana eskatzen dut. Eskertzen dut hartu duzuen konpromisoa, guztion hartu duzuen konpromisoa; ekin diezaiozun lanari erantzukizunarekin. Bete dezagun gure agindua, Euskadik aurrera egiten jarrai dezan.

Eskerrik asko guztioi!